



Pentsio publikoen harira

Berriki Toledoko Ituneko kideak adostasunera heldu ziren, etorkizuneko pentsio publikoak nolakoak izango diren finkatze aldera. Hainbat irizpide onetsi ziren legebiltzar zentralak kontutan izan ditzan.

Egiari zor, finkatutako zenbait irizpide baikorrek dira, hala nola pentsioen urteroko igoera, eros ahalmena ez galtze aldera, Kontsumoen Prezio Indizearen (KPI) arabera egikarrituko baita; edo pentsio kopurua zehazterakoan ekar-tzaile bakoitzaren lan-historiako 25 urte oparoenak kontutan hartzea. Alabaina, gobernu zentralak, berehala, iragazi zuen 25 urte horien ordez, 35 hartzea; horrela, bat batean, pentsio kopurua murriztuta geratuko litzateke.

Halaber, alde negatiboak ere baditu. Hasteko, pentsio publikoak finkatzeko filosofia aldaketa eskatu behar litzaeie politikariei eta horri ez diote heldu. Izan ere, pentsio publikoen filosofia aldatu ordez eta horretarako zuzendu behar diren funts publiko gehigarriak aurkitu ordez, gastu publikoa konstante eta nahiko aldagaitza dela aitortuko digute, eta kopuru hori banatu beharko da pentsiodunak etengabe hazten ari diren bitartean.

Pentsio publikoen filosofiaren aldaketak adierazi nahi du pentsioen zerbitzuak, beste edozein zerbitzu publiko bezala izan behar duela. Hau da: zergatik hezkuntza publikoa edo hitzartua, justizia, defentsa edo osasungintza estatuaren aurrekontuetan sartzen dira eta

Zergatik hezkuntza publikoa edo hitzartua, justizia, defentsa edo osasungintza estatuaren aurrekontuetan sartzen dira eta zerga orokorren bidez finantzatu, eta ez da berdin gertatzen pentsio publikoekin?

zerga orokorren bidez finantzatu, eta ez da berdin gertatzen pentsio publikoekin? Horretarako, pentsio publikoak interes ekonomikoko zerbitzu gisa aitortu beharko lirateke.

Pentsio publikoen trataera honen ondorioz, Gizarte Segurantzaren aurrekontua Estatuaren aurrekontu orokorrean sartuta egongo litzateke eta langile eta kapitalaren ekarpen ekonomikoak sarrera publikoen baitan kokatuta.

Pentsioen inguruko beste puntu bat ere hausnarketarako bidea ematen du eta berau jubilatzeko adina luzatzeko proposamenean datza. Gainera, adin hori luzatzearen truk diru sarrera opa-rogoekin sarituko litzateke jubilatua.



**BALEREN BAKAIKOA
AZURMENDI**
EKONOMIALARIA

Nire uste apalean, lan aroa luzatzeko erabakia borondatezkoa izan behar luke eta behin urte kopuru bat lan egin ostean, eskubide osoa izan beharko litzateke pentsio gorena eskuratu ahal izateko eta beranduago jubilatu nahi duen pertsona diruz zigortu, lanpostuak libre utz ditzan. Eta erabat galarazi beharko lirateke erretiro aurreratuak, duela urte batzuk gertatzen zen bezala; salbuespena enpresa batek porrot egin ostean adineko langileak izango lirateke, beste lanpostu bat eskuratzeko ezinezkoa zaielako.

Bestalde, Toledoko Itun berriak pentsio pribatuei ateak irekitzeko zirrikitua ere zabaldu die eta arlo honetan sindikatuei jarraitu behar zaie, jarrera baitute ugazabekin hitzartzeko pentsio mota hauek, eratzekoan berauen kudeaketan parte hartzea gogoko dutelako. Bestalde, harrigarria egiten zaigu ugazabek pentsio pribatuak sustatu gura izatea diru ekarpenak gauzatu; aldiz, ez dute ekarpen gehiagorik egin nahi pentsio publikoak sendotzeko. Gainera, pentsio funts hauen inguruan bi motatako langileak azalduko lirateke, enpresa handietakoak eta txikietakoak, azken hauek zailtasunak izango lituzketelako funts horiek eratzeko. Halaber, pentsio pribatuak sustatzen direnean zerga abantailak egongo dira, hiritarron kaltetan, ogasunak diru publiko urriagoak eskuratuko baititu.

Hauek dira langile eta pentsiodunok, besteren artean, kontutan izan behar ditugun gai batzuk. Erne, beraz! ●